**AGINDUA, 2022KO MAIATZAREN 30EKOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA, LAN ETA ENPLEGU SAILAREN 2022. URTERAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUEN AGINDUA ALDARAZTEKOA.**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluak xedatzen duenez, dirulaguntzei buruzko plan estrategiko bat egin behar da nahitaez. Bertan zehaztuko dira, Sailaren dirulaguntzekin lotuta, plana aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, bai eta horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzatzeko iturriak ere; betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta. Estatuko oinarrizko legedia izango da prezeptu hori.

Aurrekoa betetzeko, Lan eta Enplegu Sailaren 2022. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen Agindua eman zuen Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak, 2021eko abenduaren 14an.

Errusiak Ukraina inbaditu izana ondorio ukaezinak edukitzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoan, bai alderdi humanitarioetan, bai egoera ekonomikoan. Horren ondorioz, 2022ko apirilaren 12an, Gobernu Kontseiluak akordio bat onartu du, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialen gaineko aurrekontu-neurriak ezartzeko. Horrenbestez, erreskate ekonomikoko funts baten sorrera onartu da, besteak beste. Funts horrek 142,9 milioi euro izango ditu enpresei eta enpresa txiki eta ertainei, lehen sektoreko enpresei eta merkataritzaren sektoreko enpresei zuzendutako laguntza osagarriak finantzatzeko eta, hala, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen barruan, Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoei aurre egiteko, aipatu akordioaren eranskinean ezarritako banaketaren arabera.

Horren arabera, Gobernu Kontseiluaren 2022ko apirilaren 12ko akordioaren eranskinean, enpresei eta enpresa txiki eta ertainei zuzendutako laguntza osagarrien barruan, honako hauek aurreikusten dira: gizarte-ekonomiako enpresentzako laguntza-programa bat, 5 milioi eurokoa; gizarte-ekintzailetzaren eremuko laguntza-programa bat, milioi bat eurokoa; eta kontsumo energetikoko kooperatibak sustatzeko laguntza-programa bat, milioi bat eurokoa. Lan eta Enplegu Sail honetako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak kudeatuko ditu programa horiek.

Laguntza-programa horiek ez daude sartuta sail honek 2022rako duen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan eta, beraz, plan hori aldatu behar da, indarrean dagoen araudia betetzeko. Era berean, aldaketa batzuk egin behar dira dirulaguntza-lerroetan, aurrekoaren eraginik jasan ez duten arren egokitu eta zuzendu beharreko alderdi batzuk baitituzte.



Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T3Q9V-0CS0
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** IDOIA MENDIA CUEVA | 2022/05/30 11:05:30

Goian adierazitakoa kontuan hartuta, eta Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) emandako eskumenen arabera, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuarekin lotuta (Lan eta Enplegu Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena), honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**Lehena**.- Lan eta Enplegu Sailaren 2022. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2021eko abenduaren 14ko Aginduaren eranskineko dirulaguntza-lerro hauetako 1., 2. eta 3. Eranskinak aldatzea, Gizarte Ekonomiari buruzkoak:

1) 1. dirulaguntza-lerroa: Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko laguntzak.
2) 3. dirulaguntza-lerroa: Asistentzia teknikoa eta enpresa-arlokoa emateko laguntzak.
3) 4. dirulaguntza-lerroa: Enpresen arteko elkar-lankidetza gizarte-ekonomian.
4) 6. dirulaguntza-lerroa: Prestakuntza, hedapena eta ikerketa gizarte-ekonomian.
5) 9. dirulaguntza-lerroa: Enpresaren gizarte-erantzukizunaren sustapena, eremu guztietan hedatutako enpresetan ezarriz.

Agindu honekin batera, aipatutako dirulaguntza-lerroen 1., 2. eta 3. eranskinen behin betiko bertsioa erantsi da.

**Bigarrena**.- Lan eta Enplegu Sailaren 2022. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen Bigarren lehendakariordearen eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2021eko abenduaren 14ko Agindua aldatzea, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzako 11. dirulaguntza-lerroa gehituz, honako hauei buruzkoa: “Ezohiko laguntzak Ukrainako gerraren eta Errusiari jarritako zehapen ekonomikoen ondorioz galera ekonomikoak jasan dituzten gizarte-ekonomiako enpresentzat”, 2022. urterako. Laguntza hori, zehazki, Agindu honen 1., 2. eta 3. eranskinetan deskribatzen da.

**Hirugarrena**.- Publizitatea eman dakiola agintzea, Lan eta Enplegu Sailaren webgunean argitaratuz eta, era berean, unean-unean ordenamendu juridikoan informazioaren eta gardentasunaren arloan aurreikusitako beste edozein xedapen aplika dakiola.

Bigarren lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

## GIZARTE EKONOMIAREN ZUZENDARITZA

### GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESAK SORTZEKO LAGUNTZAK

### 1. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

**1. helburu estrategikoa:** Kooperatiben eta lan-sozietateen sorreran eta hazkundean laguntzea eta horiei bultzada ematea

**1. dirulaguntza-lerroa:** Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko laguntzak

**Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza

**Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia

**Helburua:** Kooperatiben eta lan-sozietateen sorreran eta hazkundean laguntzea eta horiei bultzada ematea

**Ekintzak:**

*2. KAPITULUA: GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESAK SORTZEN LAGUNDUKO DUEN EKOSISTEMA BAT SORTZEKO LAGUNTZAK*

- Ideien lehiaketak egitea, gizarte-ekonomian espiritu ekintzailea sustatzeko eta enpresaren kultura zabaltzeko.
- Ekonomiaren ereduko preskribatzaileen sarea hobetu eta osatzea, tresnak emanez (informazioa eta ezagutza).
- Planifikatutako Sustapen Plana egitea.

*3. KAPITULUA: GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESAK ERATU ETA SUSTATZEKO LAGUNTZAK*

- Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko laguntzak.
- Gizarte-ekonomiako enpresa berriak sustatzeko laguntzak.
- Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioko azterketa egiteko laguntzak, gizarte-ekonomiako enpresa bat sustatze aldera.

*4. KAPITULUA: GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESAK FINKATZEKO LAGUNTZAK*

- Gizarte-ekonomiako enpresetan kide berriei eman beharreko prestakuntza.
- Enpresa-kudeaketako tresnak gizarte-ekonomiako sozietate berrientzat.

*5. KAPITULUA: UKRAINAKO GERRAREN ETA ERRUSIARI JARRITAKO ZEHAPENEN ONDORIOAK JASAN DITUZTEN ENPRESEN EKINTZAILETZARAKO LAGUNTZAK*

- Kapitala handitzeko laguntzak, Ukrainako gerraren eta ondorengo zehapenen zioz.

*6. KAPITULUA: GIZARTE EKONOMIAREN FORMA DAUKATEN ERKIDEGO ENERGETIKOAK SORTZEKO ETA FINKATZEKO LAGUNTZAK*

- Gizarte-ekonomiaren forma daukaten erkidego energetikoen ereduari buruzko informazioa eta hedapena.
- Bideragarritasunari, eraketari eta mantentzeari buruzko aholkularitza.
- Eratutako erakundeen funts propioen igoera.

| **Adierazleak:** | **2021** | **2022** |
|---|---|---|
| 1. adierazlea: Sustatutako lehiaketen kopurua | 2 | 2 |
| 2. adierazlea: Preskribatzaileentzako baliozko proposamenen kopurua | - | 7 |
| 3. adierazlea: Planifikatutako lurralde-sustapeneko plan lagunduak | 4 | 5 |
| 4. adierazlea: Sortutako kooperatiben eta lan-sozietateen kopurua | 150 | 150 |
| 5. adierazlea: Enpleguaren sorrera | 500 | 500 |
| 6. adierazlea: Diruz lagundutako erakunde sustatzaileen kopurua | 4 | 4 |
| 7. adierazlea: Enpresetan egindako bideragarritasun-ikerketen kopurua | 10 | 10 |
| 8. adierazlea: Prestakuntza espezifikoa jaso duten enpresa edo pertsona bazkide langileen kopurua | 1 | 500 |
| 9. adierazlea: Enpresa-kudeaketa aurreratuan gaitutako tresnen kopurua | 25 | 25 |
| 10. adierazlea: Kapitala handitzen duten enpresen kopurua | - | 0 |
| 11. adierazlea: Diruz lagundutako informazio-kanpainak | - | 5 |
| 12. adierazlea: Ahalbidetutako aholkularitzak | - | 15 |
| 13. adierazlea: Kapitala handitzen duten eta dirulaguntza jasotzen duten gizarte-ekonomiako enpresen kopurua | - | 7 |

**2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publiko osoarekiko**

| **1. helburu estrategikoa**: Kooperatiben eta lan-sozietateen sorreran eta hazkundean laguntzea eta horiei bultzada ematea | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. dirulaguntza-lerroa**: Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko laguntzak | | | | |
| **Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | **2021** | | **2022** | |
| **Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia | Zenbatekoa eurotan | % | Zenbatekoa eurotan | % |
| *7. kapitulua:* | 2.795.000 | % 100 | 5.045.000 | % 180 |
| ***Dirulaguntza-lerroa, guztira:*** | **2.795.000** | **% 100** | **5.045.000** | **% 180** |

**3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Sektore hartzailea(k) eta laguntza emateko prozedura**

| | |
|---|---|
| **1. helburu estrategikoa**: Kooperatiben eta lan-sozietateen sorreran eta hazkundean laguntzea eta horiei bultzada ematea | |
| **1. dirulaguntza-lerroa**: Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko laguntzak | |
| **Organoa**: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | |
| **Egitaraua**: 3212 Gizarte Ekonomia | |
| **Sektore hartzaileak** | Kooperatibak eta lan-sozietateak<br>Kooperatibak edo lan-sozietateak sustatzea helburu duten pertsona juridikoak<br>Kanpoko aholkularitzak<br>Planifikatutako lurralde-sustapenerako erakunde espezifikoak<br>Gizarte-ekonomiako enpresak, programa honetara atxiki direnak azken 5 urteetan<br>Azken bost urteetan diruz lagundu diren gizarte-ekonomiako enpresetako bazkide langileak |
| **Laguntzak emateko prozedura** | Deialdi publikoa - lehiarik gabeko konkurrentzia |

## GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESENTZAKO ASISTENTZIA TEKNIKORAKO LAGUNTZAK

### 1. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

| |
|---|
| **2. helburu estrategikoa**: Enpresa-kudeaketako eredu aurreratuetan integratzeko bidea erraztea, eta kooperatiben edo lan-sozietateen arteko sinergien bila jardutea |
| **3. dirulaguntza-lerroa**: Laguntza teknikoa eta enpresa-arlokoa emateko laguntzak |
| **Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza |
| **Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia |
| **Helburua**: Kudeaketa-planak, kostuak kontrolatzeko kalkulu-metodoak, merkataritza-kudeaketako aholkularitza espezifikoa eta arazoak dituzten enpresak suspertzeko planak diseinatzea |
| **Ekintzak:** |
| a) Urteko kudeaketa-plana edo Aginte Taula Integrala egitea eta ezartzea, enpresen egitura ekonomiko-finantzarioa barne. |
| b) Ordezkaritza handiena duten gizarte-ekonomiako erakundeek aldez aurretik behar den azterlan ekonomiko eta finantzarioa egitea, euren erakunde elkartuei bermeak emateko. |
| c) Kooperatiben eta lan-sozietateen merkataritza-kudeaketako aholkularitza espezifikoa jasotzea. |
| d) Kudeatzailetzari laguntzeko zerbitzu espezializatuak kontratatzea, kudeatzaileen edo zuzendarien egitekoetan laguntzeko, edo kooperatiba eta lan-sozietateetako jardun-arloekin zerikusia duten zerbitzuak kontratatzea, profesionalizazioa areagotzen laguntzeko xedez, merkatuan lehiakortasunari eusteko eta lehiakorragoak izateko giltzarrietako bat delako. |
| e) Zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko plantzat hartzen diren ekintzak egitea, gomendio zehatzak barnean hartuta enpresaren lehiakortasuna hobetzeko eta, hala badagokio, finantzaketa lortzeko. |
| f) Erakundeak eraldatzeko tresna berriak ezartzea. |

| |
|---|
| g) Gizarte-ekonomiako enpresen digitalizazioaren eta ingurumenaren arloko beharren eta gizarte-ekonomiari laguntzeko kontzeptu berrien diagnostikoa egitea (lehiakortasuna, expertise independentea, mentoring behartua, berrikuntza, marketina). |
| h) Enpresak digitalizatzeko tresnak ezartzea. |
| i) Ingurumen-arloko sentsibilizazio-ekintzak ezartzea, prestakuntza-ekintzak barne, gizarte-ekonomiako enpresen kudeaketa planifikatuan, ingurumen-jasangarritasuna hobetzeko. |

| **Adierazleak:** | **2021** | **2022** |
|---|---|---|
| 1. adierazlea: Diruz lagundutako kudeaketa-planen kopurua | 25 | 25 |
| 2. adierazlea: Diruz lagundutako aginte-taula integralen kopurua | 10 | 20 |
| 3. adierazlea: Partzialki diruz lagundutako berme-azterketak dituzten enpresen kopurua | 15 | 15 |
| 4. adierazlea: Diruz lagundutako merkataritza-kudeaketako aholkularitzen kopurua | 5 | 5 |
| 5. adierazlea: Diruz lagundutako gerentzia-zerbitzuen kopurua | 3 | 10 |
| 6. adierazlea: Krisian egondako enpresak berpizteko diruz lagundutako planen kopurua | 5 | 5 |
| 7. adierazlea: Erakundeak eraldatzeko diruz lagundutako tresna berrien kopurua | 5 | 5 |
| 8. adierazlea: Digilizazioaren eta ingurumenaren arloko beharren gainean egindako diagnostikoen kopurua | 1 | 1 |
| 9. adierazlea: Enpresak digitalizatzeko tresnen kopurua | 15 | 15 |
| 10. adierazlea: Gizarte-ekonomiako enpresetan ingurumen-jasangaritasuna sustatzeko diruz lagundutako neurrien kopurua | 15 | 15 |

**2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publiko osoarekiko**

| **2. helburu estrategikoa:** Enpresa-kudeaketako eredu aurreratuetan integratzeko bidea erraztea, eta kooperatiben edo lan-sozietateen arteko sinergien bila jardutea | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **3. dirulaguntza-lerroa:** Laguntza teknikoa eta enpresa-arlokoa emateko laguntzak | | | | |
| **Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | **2021** | | **2022** | |
| **Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia | Zenbatekoa eurotan | % | Zenbatekoa eurotan | % |
| *4. kapitulua:* | 250.000€ | % 100 | 440.000€ | % 176 |
| ***Dirulaguntza-lerroa, guztira:*** | **250.000€** | **% 100** | **440.000€** | **% 176** |

## 3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Sektore hartzailea(k) eta laguntza emateko prozedura

| | |
|---|---|
| **2. helburu estrategikoa:** Enpresa-kudeaketako eredu aurreratuetan integratzeko bidea erraztea, eta kooperatiben edo lan-sozietateen arteko sinergien bila jardutea | |
| **3. dirulaguntza-lerroa:** Laguntza teknikoa eta enpresa-arlokoa emateko laguntzak | |
| **Organoa**: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | |
| **Egitaraua**: 3212 Gizarte Ekonomia | |
| **Sektore hartzaileak** | -Gizarte-ekonomiako enpresak eta erakundeak<br>-Elkartze-erakundeak |
| **Laguntzak emateko prozedura** | Deialdi publikoa - lehiarik gabeko konkurrentzia |

**GIZARTE EKONOMIAKO SOZIETATEEN ARTEAN ENPRESEN ARTEKO ELKAR-LANKIDETZARAKO LAGUNTZAK**

**1. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak**

| | | |
|---|---|---|
| **2. helburu estrategikoa:** Enpresa-kudeaketako eredu aurreratuetan integratzeko bidea erraztea, eta kooperatiben edo lan-sozietateen arteko sinergien bila jardutea | | |
| **4. dirulaguntza-lerroa:** Enpresen arteko elkar-lankidetza gizarte-ekonomian | | |
| **Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | | |
| **Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia | | |
| **Helburua:** Kooperatiben eta lan-sozietateen arteko sinergien bilaketa sustatzea | | |
| **Ekintzak:** | | |
| • Elkar-lankidetzako proiektu bat egitea eta ezartzea. | | |
| • Akordioak landu eta formalizatzea, eta enpresen arteko lankidetzarako enpresak edo egiturak sortzea, gizarte-ekonomiako enpresek bat egiteko beharrezkoak direnak barne. | | |
| • Gizarte-ekonomiako enpresen bat-egitea. | | |
| • Pertsonen kapitala handitzea, bat-egitea egiteko. | | |
| • Gizarte-ekonomiako elkartze-erakundeen arteko lankidetza. | | |
| **Adierazleak:** | **2021** | **2022** |
| 1. adierazlea: Diruz lagundutako proiektuen kopurua | 15 | 15 |
| 2. adierazlea: Formalizatutako erabakien kopurua | 5 | 5 |
| 3. adierazlea: Eusko Jaurlaritzatik babestutako bat-egiteen kopurua | - | 1 |
| 4. adierazlea: Bat-egitearen ostean diruz laguntzen diren sozietateen kopurua | - | 2 |

| | | |
|---|---|---|
| 5. adierazlea: Elkartze-erakundeek egindako ekintzen kopurua | - | 5 |

**2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publiko osoarekiko**

| **2. helburu estrategikoa**: Enpresa-kudeaketako eredu aurreratuetan integratzeko bidea erraztea, eta kooperatiben edo lan-sozietateen arteko sinergien bila jardutea | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **4. dirulaguntza-lerroa:** Enpresen arteko elkar-lankidetza gizarte-ekonomian | | | | |
| **Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | **2021** | | **2022** | |
| **Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia | Zenbatekoa eurotan | % | Zenbatekoa eurotan | % |
| *4. kapitulua:* | 110.000€ | % 100 | 110.000€ | % 100 |
| ***Dirulaguntza-lerroa, guztira:*** | **110.000€** | **% 100** | **110.000€** | **% 100** |

**3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Sektore hartzailea(k) eta laguntza emateko prozedura**

| | |
|---|---|
| **2. helburu estrategikoa**: Enpresa-kudeaketako eredu aurreratuetan integratzeko bidea erraztea, eta kooperatiben edo lan-sozietateen arteko sinergien bila jardutea | |
| **4. dirulaguntza-lerroa:** Enpresen arteko elkar-lankidetza gizarte-ekonomian | |
| **Organoa**: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | |
| **Egitaraua**: 3212 Gizarte Ekonomia | |
| **Sektore hartzaileak** | - Kooperatibak eta lan-sozietateak<br>- Gizarte-ekonomiako enpresen eta entitateen elkartze-erakundeak |
| **Laguntzak emateko prozedura** | Deialdi publikoa - lehiarik gabeko konkurrentzia |

**GIZARTE-EKONOMIAN TREBATZEKO LAGUNTZAK**

**1. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak**

| |
|---|
| **4. helburu estrategikoa**: Gizarte-ekonomiak Euskadin duen errealitateari buruz prestatzea, dibulgatzea, ikertzea eta jakinaraztea, eta aurrera egitea ekonomia horren azterketan nahiz gizartean zabaltzeko eta sakontzeko proposamenak egitean |
| **6. dirulaguntza-lerroa**: Prestakuntza, hedapena eta ikerketa Gizarte Ekonomian |
| **Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza |
| **Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia |
| **Helburua:** Gizarte-ekonomiak Euskadin duen errealitateari buruz prestatzea, dibulgatzea, ikertzea eta jakinaraztea, eta aurrera egitea ekonomia horren azterketan nahiz gizartean zabaltzeko eta sakontzeko proposamenak egitean |
| **Ekintzak:** |
| *PRESTAKUNTZAKOAK* |
| • Gizarte Ekonomiako berariazko prestakuntza |
| • Unibertsitatearen eremuko unitate didaktikoak |
| • Gizarte-ekonomiako prestakuntzako esperientzia pilotuak |
| • Unibertsitate-sistemako plana / baliozko proposamena |
| *ZABALKUNDEKOAK* |
| • Aldian behingo jardunaldiak egitea |

| | | |
|---|---|---|
| • Materialak eta aldizkariak etengabe argitaratzea | | |
| • Gizarte-ekonomiako enpresak eta erakundeak ikusarazteko ekitaldi bereziak egitea | | |
| • Gizarte-ekonomiako zabalkunde-jarduerak egitea hainbat formatu eta euskarri grafikotan: irratia, prentsa, telebista, internet eta multimedia | | |
| *IKERKETAKOAK* | | |
| • Gizarte-ekonomiako ikerketa-jarduera berritzaile eta erabilgarriak | | |
| • Ingurumena | | |
| • Elkarrekiko elkartasunerako funtsak | | |
| • Aurreikuspen-plan propioa | | |
| • Zehapen-araubidea | | |
| **Adierazleak:** | **2021** | **2022** |
| 1. adierazlea: Prestatutako ikasleen kopurua | 1.000 | 1.000 |
| 2. adierazlea: Prestatutako unitate didaktikoen kopurua | - | 3 |
| 3. adierazlea: Gizarte-ekonomiaren gainean ezarritako esperientzia pilotuen kopurua | - | 2 |
| 4. adierazlea: Unibertsitate Sistemaren Planaren gainean egindako azterketen kopurua | - | 3 |
| 5. adierazlea: Egindako jardunaldien kopurua | 20 | 20 |
| 6. adierazlea: Diruz lagundutako argitalpenen kopurua | 8 | 8 |
| 7. adierazlea: Egindako ekitaldi berezien kopurua | | |
| 8. adierazlea: Diruz lagundutako hedapen-jardueren kopurua | 3 | 3 |
| 9. adierazlea: Egindako ikerketa-kopurua | 5 | 10 |
| 10. adierazlea: Ingurumenaren eta gizarte-ekonomiaren gainean sustatutako azterketen | 5 | 5 |
| kopurua | 1 | 3 |
| 11. adierazlea: Elkarrekiko elkartasunerako funtsen gainean egindako azterketen | - | 1 |
| kopurua | - | 1 |
| 12. adierazlea: Aurreikuspen-plan propioa sortzeari buruzko azterketen kopurua | - | 3 |
| 13. adierazlea: Zehapen-araubidearen gainean diruz lagundutako azterketen kopurua | | |

**2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publiko osoarekiko**

| **4. helburu estrategikoa:** Gizarte-ekonomiak Euskadin duen errealitateari buruz prestatzea, dibulgatzea, ikertzea eta jakinaraztea, eta aurrera egitea ekonomia horren azterketan nahiz gizartean zabaltzeko eta sakontzeko proposamenak egitean | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **6. dirulaguntza-lerroa**: Prestakuntza, hedapena eta ikerketa Gizarte Ekonomian | | | | |
| **Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | **2021** | | **2022** | |
| **Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia | Zenbatekoa eurotan | % | Zenbatekoa eurotan | % |
| *4. kapitulua:* | 697.000€ | % 100 | 697.000 | % 100 |
| ***Dirulaguntza-lerroa, guztira:*** | **697.000€** | **% 100** | **697.000** | **% 100** |

**3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Sektore hartzailea(k) eta laguntza emateko prozedura**

| | |
|---|---|
| **4. helburu estrategikoa:** Gizarte-ekonomiak Euskadin duen errealitateari buruz prestatzea, dibulgatzea, ikertzea eta jakinaraztea, eta aurrera egitea ekonomia horren azterketan nahiz gizartean zabaltzeko eta sakontzeko proposamenak egitean | |
| **6. dirulaguntza-lerroa**: Prestakuntza, hedapena eta ikerketa Gizarte Ekonomian | |
| **Organoa**: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | |
| **Egitaraua**: 3212 Gizarte Ekonomia | |
| **Sektore hartzaileak** | - Unibertsitateak<br>- Gizarte-ekonomiako enpresen eta entitateen elkartze-erakundeak<br>- Kooperatiben edo lan-sozietateen talde edo egituren mende dauden prestakuntza-zentroak |
| **Laguntzak emateko prozedura** | Deialdi publikoa - lehiarik gabeko konkurrentzia |

## ENPRESAREN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA BULTZATZEKO LAGUNTZAK

### 1. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

| | | |
|---|---|---|
| **6. helburu estrategikoa**: Enpresaren gizarte-erantzukizunaren ezarpena sustatzea | | |
| **9. dirulaguntza-lerroa**: Enpresaren gizarte-erantzukizunaren sustapena, enpresetan eta eremu guztietan hedatuz | | |
| **Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | | |
| **Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia | | |
| **Helburua:** Enpresen gizarte-erantzukizunari buruzko azterketa aurreratuak egitea, enpresetan enpresen gizarte-erantzukizunari buruzko planak ezartzea eta horiek hedatzea | | |
| **Ekintzak:** | | |
| • Enpresen gizarte-erantzukizuna egin eta enpresetan ezartzea, jasangarritasun-memorien bidez. | | |
| • Diagnosia egitea jakiteko enpresek zer ekarpen egiten dieten garapen jasangarrirako helburuei (GJH), gizarte-ekonomiakoak EZ diren enpresetan. | | |
| • Diagnosia egitea jakiteko enpresek zer ekarpen egiten dieten garapen jasangarrirako helburuei (GJH), gizarte-ekonomiako enpresetan. | | |
| • Enpresen gizarte-erantzukizunaren kulturaren hedapena. | | |
| **Adierazleak:** | **2021** | **2022** |
| 1. adierazlea: Enpresen gizarte-erantzukizunaren gainean ezarritako planen kopurua | **20** | **20** |

| | | |
|---|---|---|
| 2. adierazlea: GJH gizarte-ekonomiakoak EZ diren enpresetan | **-** | **10** |
| 3. adierazlea: GJH gizarte-ekonomiako enpresetan | **-** | **10** |
| 4. adierazlea: Egindako hedapenen kopurua | **5** | **5** |

**2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publiko osoarekiko**

| **6. helburu estrategikoa**: Enpresaren gizarte-erantzukizunaren ezarpena sustatzea | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **9. dirulaguntza-lerroa**: Enpresaren gizarte-erantzukizunaren sustapena, enpresetan eta eremu guztietan hedatuz | | | | |
| **Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | **2021** | | **2022** | |
| **Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia | Zenbatekoa eurotan | % | Zenbatekoa eurotan | % |
| *4. kapitulua:* | 150.000€ | % 100 | 150.000€ | % 100 |
| ***Dirulaguntza-lerroa, guztira:*** | **150.000€** | **% 100** | **150.000€** | **% 100** |

**3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Sektore hartzailea(k) eta laguntza emateko prozedura**

| | |
|---|---|
| **6. helburu estrategikoa**: Enpresaren gizarte-erantzukizunaren ezarpena sustatzea | |
| **9. dirulaguntza-lerroa**: Enpresaren gizarte-erantzukizunaren sustapena, enpresetan eta eremu guztietan hedatuz | |
| **Organoa**: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | |
| **Egitaraua**: 3212 Gizarte Ekonomia | |
| **Sektore hartzaileak** | - Sozietatearen helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan daukaten enpresa txiki eta ertainak<br>- Enpresen gizarte-erantzukizunaren sustapenean edo kudeaketa aurreratuan espezializatuak diren erakundeak, enpresa-elkarteak eta unibertsitateak |
| **Laguntzak emateko prozedura** | Deialdi publikoa - lehiarik gabeko konkurrentzia |

**UKRAINAKO GERRAREN ETA ERRUSIARI JARRITAKO ZEHAPENEN ERAGINA JASAN DUTEN GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESENTZAKO EZOHIKO LAGUNTZAK**

**1. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak**

| | | |
|---|---|---|
| **8. helburu estrategikoa**: Ekintza zuzena eta premiazkoa gizarte-ekonomia solidarioaren inguruan | | |
| **11. dirulaguntza-lerroa**: Ezohiko laguntzak gizarte-ekonomiako enpresentzat, Ukrainako gerraren eta Errusiari jarritako zehapen ekonomikoen ondorioz galera ekonomikoak izan dituztenen kasuetarako. | | |
| **Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | | |
| **Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia | | |
| **Helburua:** | | |
| **Ekintzak:** Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatibek eta lan-sozietateak Ukrainarekiko eta Errusiarekiko harremanaren zioz jasandako galera ekonomikoak arintzeko edo konpentsatzeko laguntzak, Ukrainako gerraren eta haren ondorioen kalteak jaso dituztenen kasuetarako. | | |
| **Adierazleak:** | **2021** | **2022** |
| Adierazlea: Lagundutako enpresen kopurua | - | 10 |

**2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publiko osoarekiko**

| **8. helburu estrategikoa**: Ekintza zuzena eta premiazkoa gizarte-ekonomia solidarioaren inguruan | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **11. dirulaguntza-lerroa**: Ezohiko laguntzak gizarte-ekonomiako enpresentzat, Ukrainako gerraren eta Errusiari jarritako zehapen ekonomikoen ondorioz galera ekonomikoak izan dituztenen kasuetarako. | | | | |
| **Organoa:** Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | **2021** | | **2022** | |
| **Egitaraua:** 3212 Gizarte Ekonomia | Zenbatekoa eurotan | % | Zenbatekoa eurotan | % |
| *7. kapitulua:* | - | - | 5.000.000 | % 100 |
| ***Dirulaguntza-lerroa, guztira:*** | - | - | **5.000.000** | **% 100** |

**3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak: Sektore hartzailea(k) eta laguntza emateko prozedura**

| | |
|---|---|
| **8. helburu estrategikoa**: Ekintza zuzena eta premiazkoa gizarte-ekonomia solidarioaren inguruan | |
| **11. dirulaguntza-lerroa**: Ezohiko laguntzak gizarte-ekonomiako enpresentzat, Ukrainako gerraren eta Errusiari jarritako zehapen ekonomikoen ondorioz galera ekonomikoak izan dituztenen kasuetarako. | |
| **Organoa**: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza | |
| **Egitaraua**: 3212 Gizarte Ekonomia | |
| **Sektore hartzaileak** | Kooperatibak eta lan-sozietateak |
| **Laguntzak emateko prozedura** | Deialdi publikoa - lehiarik gabeko konkurrentzia |